



PARTE HARTZEKO OINARRIAK ESNE BELTZAREN 'AZKEN JAIA' KONTZERTUKO BI SARREREN ZOZKETARAKO

(Zozketa Euskadiko Liburutegi Zerbitzuko Instagram profilean @euskarianaejgv)

1. Zozketaren enpresa arduraduna

Zados Comunicación Global y Organización de Eventos S.L. enpresak (helbidea: Mariturriko bulebarra 42, 01015 Vitoria-Gasteiz, Araba, eta IFK: B01405315) antolatzen du Esne Beltzaren 'Azken Jaia' kontzerturako bi sarrereren zozketa, Euskadiko Liburutegi Zerbitzuaren izenean, azkeneko hau zozketa horren sustatzailea izanik.

2. Zozketaren saria

Zozketaren irabazleari Esne Beltzak 2025eko otsailaren 1ean Bilbon (Bilbao Arena - Miribilla) eskainiko duen kontzerturako bi sarrera emango zaizkio.

3. Zozketaren hasiera- eta amaiera-datak

Zozketarako parte hartzea 2024ko azaroaren 20an hasiko da, 10:00etan, eta azaroaren 26an amaituko da, 23:59etan.

Zozketa antolatzaileak egingo du 2024ko azaroaren 27an, eta Euskarianako Instagrameko profilaren istorioetan grabatu eta argitaratuko da (@euskarianaejgv). Era berean, irabazleari jakinaraziko zaio, Instagrameko bere kontura mezu zuzena bidalita.

Zozketa online plataforma baten bidez egingo da, irabazlea ausaz eta aleatorioki hautatuz, parte-hartzaileekiko objektibotasuna eta berdintasuna bermatuz.

Irabazleak Euskarianarekin instagram bidez harremanetan jartzeko eta saria erreklamatzeko epea 2024ko azaroaren 27tik 2024ko azaroaren 29ra da, oinarri hauen 6. atalean aurreikusitakoaren arabera.



4. Parte-hartzaileak

Jarduera honetan dohainik eta borondatez parte har dezakete **18 urtetik gorako pertsona fisikoek, Instagramen benetako profila izanik, baldin eta Euskarianaren jarraitzaile badira eta zozketan parte hartzen badute oinarri hauetako 5. atalean aurreikusitako parte-hartze sistemaren arabera.**

Zozketa honetan **ezingo dute parte hartu jardueraren erakunde sustatzaileko langileek, ez eta enpresa antolatzaileko langileek ere.** Halakorik gertatuz gero, erakunde antolatzaileak automatikoki baztertuko ditu partaidetza horiek.

Zozketak diharduen bitartean profila irekita izatea gomendatzen zaio parte-hartzaileari, enpresa antolatzaileak aztertu ahal izan dezan. Erakunde antolatzaileak ez du bere gain hartuko parte-hartzaileek emandako datuen egiazkotasunaren erantzukizuna, ezta parte-hartzaileekin eta/edo irabazlearekin harremanetan jartzeko aukerarik ez izatea ere, emandako datuak zuzenak ez badira edo akatsak badituzte. Sustatzaileak eta antolatzaileak eskubidea izango dute parte-hartzaileak baztertzeko, beren ekintza edo hutsegiteengatik zozketa behar bezala egitea eragozten badute.

Irabazlearekin ezarritako epeetan harremanetan jartzerik ez badago, zozketa berriro egingo da ordezko bat aukeratzeko, eta aurreko irabazleak saria erreklamatzeko eskubidea galduko du. Bigarren aldiz ezin bada irabazlearekin harremanetan jarri, saria eman gabe geratuko da.

5. Zozketan parte hartzeko sistema

Hauek dira parte hartzeko urratsak:

- Jarraitu Euskarianako Instagrameko profilari: @euskarianaiejgv
- "Gustatzen zait" ematea zozketaren argitalpenari.
- Aipatu kontzertuan entzun nahiko zenukeen abesti bat.
- Aipatu saria partekatu nahiko zenukeen pertsona bat. Instagrameko beste kontu errealek bat aipatu beharko da.



6. Irabazlearekin harremanetan jartzea

Antolatzailea irabazlearekin harremanetan jarriko da Instagrameko argitalpenean aipamen bat eginez eta Euskarianako profil ofizialaren bidez mezu pribatu bat bidaliz. Behin jakinarazita, irabazleak 2024ko azaroaren 26era arteko epea izango du Euskarianarekin instagram bidez komunikatzeko. Izen-abizenak, NAN, e-maila eta harremanetarako telefono bat adierazi beharko ditu, antolatzaileek saria emateko harremanetan jar daitezten. Saria 2025eko otsailaren 1era arte da erabilgarria.

7. Mugak

- Parte-hartzaileetako batek oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen ez dituela frogatzen bada, bere parte-hartzea baliogabetzat joko da eta zozketatik kanpo geratuko da automatikoki, zozketa honen bidez emandako sarien gaineko eskubide oro galduz.
- Zozketan parte hartzeko kontu faltsuak erabiltzen dituzten parte-hartzaileak ere kanpo geratuko dira.
- Emandako saria ezin izango da aldatu edo konpentsatu parte-hartzaileen artean, eta ezin izango da beste edozein produkturekin trukatu, ezta diruarekin ere.

8. Iruzkinek edo iritzirik argitaratzea

Ez da onartuko iruzkin eta iritzirik, baldin eta horien edukia desagokitzat jotzen bada, iraingarriak edo diskriminatzaileak badira, edo hirugarrenen eskubideak urra baditzakete. Era berean, ez da onartuko partikular baten aurkako iruzkinik, baldin eta horrek ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako edota norberaren irudirako eskubideen printzipioak urratzen baditu. Zozketaren sustatzailea eta antolatzailea ez dira parte-hartzaileen iruzkinak eragindako kalteen erantzule egingo, baldin eta beste batzuen sentsibiltatea mindu balezakete.

Zozketa honetan parte hartzeak eta partehartzaileek egiten dituzten iruzkinak ezin izango dituzte inola ere urratu Instagram Komunitateko arauak, ezta Instagram erabiltzeko baldintzak ere.

9. Erantzukizunetik salbuestea



Antolatzaileak ez du bere gain hartuko hirugarrenei egotz dakizkiekeen galeren, lapurreten edo esleitutako sariari eragin diezaiokeen beste edozein egoeraren gaineko erantzukizunik; era berean, ez du bere gain hartzen irabazleak zozketa honetan lortzen duen sariaren erabileraren ardura.

10. Datu pertsonalen babesa

Nahiz eta zozketaren mekanikagatik ez den beharrezkoa parte-hartzaileak zuzenean identifikatzeko datu pertsonalik biltzea, oinarri hauek onartzen dituen parte-hartzaile bakoitzak baimena ematen du datu pertsonalak fitxategi batean sartzeko, zozketa kudeatzeko, emaitzak zabaltzeko eta ezagutarazteko, eta saria emateko.

11. Aldaketak

Zozketa honen antolatzaile eta sustatzaileak oinarri hauek aldatzeko edo zabaltzeko eskubidea izango du, zozketan parte hartzen dutenen eskubideak kaltetzen edo murrizten ez dituen neurrian, betiere behar bezala jakinarazten bazaie.

12. Luzapena edo etetea

Zozketa ezin bada egin bertan antzemandako iruzurrengatik, arazo teknikoengatik edo sustatzailearen eta antolatzailearen kontroletik kanpo dagoen eta zozketaren garapen normalari eragiten dion beste edozein arrazoiengatik, sustatzaileak eta antolatzaileak zozketa ezeztatzeko edo eteteko eskubidea izango dute.

Kasu horretan, antolatzaileak Instagrameko profilaren bidez emango die informazioa parte-hartzaileei, eta zozketa egiteko data berria emango die.

13. Oinarriak onartzea

Parte hartze soilak berekin dakar oinarri hauek bere osotasunean onartzea; era berean, Instagram sare sozialaren arauak onartzea ere dakar. Beraz, arau horiek ez onartzeak parte-hartzailea baztertzea ekarriko du eta, horren ondorioz, erakunde antolatzailea libre geratuko da parte-hartzaile horrekin hartutako edozein betebeharrak betetzetik.



Saria onartzerakoan, irabazleak bere gain hartuko ditu egiten dituen gastu guztiak, berariaz jarduera honen barne daudenak izan ezik.

14. Instagramen deslotura

Instagramek ez du inolako loturarik zozketa honen kudeaketa eta sustapenarekin. Instagramek ez du zozketa honek sortutako edukia babesten.

Oinarri horiek onartuta, parte-hartzaileek Instagram libre uzten dute erantzukizun guztietatik eta uko egiten diote Instagramen aurka izan dezaketen edozein erreklamaziori, zozketarekin lotutakoak. Parte-hartzaileek emandako informazio guztia sustatzaileari eta antolatzaileari ematen zaie, eta ez sare sozialari.